

2030erako Garapen Iraunkorrerako Arabako Aliantzak "Herri bat, biodibertsitatearen aldeko ekintza bat" proiektua jarri du abian Vital Fundazioarekin eta Murgiako BHIrekin batera

Proiektuak "Lurreko ekosistemen bizitza" Arabako Aliantzaren 15. Garapen Helburuari (ODS15) erantzuten dio, gure ekosistemaren biodibertsitatearen aldeko kultura sortzeko eta Arabako Lurralde Historikoko herrietan baliabide naturalak modu parte-hartzailean kudeatzeko

Gasteiz, 2021eko maiatzaren 26a. "Herri bat, biodibertsitatearen aldeko ekintza bat" da Garapen Jasangarrirako Arabako Aliantzaren 15. GIH Lantaldeak garatzen duen proiektua, gure ekosistemaren biodibertsitatearen aldeko kultura sortzeko eta Arabako Lurralde Historikoko herrietan baliabide naturalak modu parte-hartzailean kudeatzeko.

Axier Urresti Vital Fundazioko zuzendari exekutiboak, Natividad Lopez de Munain Ingurumen eta Hirigintzako foru zuzendariak eta Unai Zubia Murgiako BHIko programaren koordinatzaileak aurkeztu dute ekimena.

Proiektua proba pilotu gisa garatu da Gorbeialdeko Kuadrillan eta Iruña Okako udalerrian, eta Legution hasi da jada, habia-kaxak eta tximeleta-oasi bat jarrita.

'Herri bat, biodibertsitatearen aldeko ekintza bat' izeneko lehen esperientzia pilotua Gorbeialdeko Kuadrillan eta Iruña Okako udalerrian egingo da, Arabako Lurralde Historikoko beste leku batzuetara eskalatzeko moduko metodologia batekin, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria modu parte-hartzailean sustatzeko. Helburua da 2022tik aurrera esperientzia beste kuadrilla batzuetara esportatzea eta tokiko esperientziekin 2030 agendaren eta Garapen Iraunkorreko 17 Helburuen ezagutza hobetzen laguntzea, bai eta tokiko ekintzen garapenarekin lehorreko ekosistemak zaintzeko eta mantentzeko inpaktu global positiboak sortzea ere.

Arabako Foru Aldundiak 2018an jarri zuen abian 2030erako Garapen Iraunkorrerako Arabako Aliantza (AADS2030), lurralde inklusibo baten eraikuntzan aurrera egiteko, inor atzean utzi gabe. Ehun bat eragileren lankidetzarekin, 17 lantalde eratu ziren, Nazio Batuen Erakundeak ezarritako garapen jasangarriko 17 helburuekin (GIH) lerrokatuta. Vital Fundazioaren ingurumen-konpromisoari esker, Murgiako BHIk 15. GIHaren garapena finantzatu ahal izango du 'Herri bat, aniztasunaren aldeko ekintza' proiektuan.